AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1532

AGINDUA, 2013ko martxoaren 13koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Palmira Antonia Díaz Inés andrea Arrantza eta Elikagaien Industriako Sailburuordetzako goi-kargudunaren idazkariaren lanpostutik kentzea xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Palmira Antonia Díaz Inés andrea Arrantza eta Elikagaien Industriako Sailburuordetzako goi-kargudunaren idazkariaren lanpostutik kentzea (520010 kodea, 141 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Lanpostutik kentze honek 2013ko martxoaren 25etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke agindua eman duen organoaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 13a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.